

Bero-beroan

54 milioi euroko aurrekontua HPSk

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2008ko aurrekontua 54.474.005 eurokoa da, iazkoa baino %6,5 handiagoa. Aurrekontu osoaren %82 euskara sustatzeko proiektuak bultzatzera bideratuko dute. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak adierazi duenez, eguneroko bizitzan euskararen erabilera indartzea da erronka nagusia, “erabilera baita euskararen etorkizunaren giltza”.

Euskara Mintzagai gazteentzat

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Labayru Ikastegiarekin eta Udako Euskal Unibertsitatearekin abian jarri duen lan ildo da Euskara Mintzagai. B eta D ereduatan ikasi duten 14-17 urte arte-

ko gazteentzat izango da. Hainbat liburu argitaratuko dituzte gazte horientzat eta beraietan euskarak bizi izan duen bilakaera azalduko da.

Barren astekariak 15 urte

1992KO ABENDUAREN 24AN argitaratu zuten *elgoiBarren* izeneko aldizkaria Gipuzkoako Elgoibar herrian. Agerkaria astekari bihurtu zen eta orduz gozotik astero euskara hutsean infor-matzten ditu elgoibartarrak.



BAHEA

Paula Kasaresek www.gipuzkoaeuskara.net-en esanak: “Berriki, Nafarroako Parlamentuko Nafarroako Ezker Batua taldeak Euskararen Foru Legearen 5. artikulua (zonifikazioa ezartzen duena) aldatzeko proposamena aurkeztu du Iruñetik hegoaldean, eremu ez euskaldunean dauden lau udalerrri (Aranguren, Beriain, Galar eta Noain-Elortzibar) eremu mistoan sartzeko. Izan ere, ikerketa ezberdinek agertu dute udalerrri horietako herritarrek begi onez ikusiko luketela udalerrri horiek eremu mistora pasatzea, batik bat, haurrak sistema publikoan euskaraz eskolatzeko aukera izateko. Ikerketa horietako batek, Nafarroako Gobernuak berak eskatu zuen *Estudio sociolingüístico en Pamplona y su comarca* (Ikertalde, 2006) ikerlanak dio aldaketa hori herritarren % 72k nahi duela.

Euskararen Foru Legea onartu zenetik bi aldiz bozkatu da Nafarroako Parlamentuan eremu mistoaren zabaltzea eta bietan ez da legebiltzarraren gehiengoa horretara bildu. Oraingo honetan hirugarrenez eztabaidatuko da eremu mistoaren muga beharrezko mugitze-ko proposamena, aurrekoetan bezala parlamentu-talde batzuentzat eskasa eta beste batzuentzat gehiegi dena”.

Mixel Oronoz Euskal Konfederazioko bozeramaleak *Berriam* esanak: “EEPko langileek eta agintariek EEPren arauak segitu behar dituzte. Bazterretik beti behar da Euskal Konfederazioa bezalako bat, ea bide onetik ari diren ikusteko, kritikatzeko eta proposamenak egiteko. Ofizialtasuna ez dugu sekula ukan. Eta hori da Euskal Konfederazioaren helburu nagusia. Hori ukanen ez duguno, gauzak ez dira bukatuko”.

TALAIAN

Negu “beroa”

Gabonak igaro dira. Errealitatea dator orain. Inflazioak igotzen jarraituko du. Premiazko produktu edo zerbitzuen prezioek gora egin dute jada: ogia, esnea, ura, argindarra, gasa, butanoa, telefonoa, garraioa, eta abar. Kasu gehienetan, gainera, aurreikusitako inflazioaren gainetik igo dira. Testuinguru horretan egin beharko da sektore sozioekonomikoen arteko negoziazio kolektiboa. Enpresek inoiz baino gehiago irabazi dute eta aurten Burtsan kotizatzen duten apurrek 3.000 milioi euro baino gehiagoko dibidenduak banatuko dituzte euren akziodunen artean. Gainerako enpresek kotizatutako proporzioan irabaziko zuten. Milioietako irabaziak pilatzen joan diren enpresa horiek, iragarritako dezelerazio ekonomikoa argudiatuko dute aldarrikapen sozial, sindikal eta langile klasekoak geldiarazteko. Eta irabaziak pilatzen jarraituko dute.

Euskal Herrian, gainera, beste bi egoera ditugu: Lakua eta Osakidetzako langileen arteko iskanbila eta lan-ezbeharrak. Lehenengoari dagokionez, negoziaketak hautsita daude, hala erabaki baitu Lakuak. Lanean jazotako istripuek berriz, zendutako 117 langile utzi zituzten aurreko urtean, azpikontratazioa eta prekarietatea bide. Horrek langile klasea mobilizatzeko modu berria ekarriko du. Beraz, gatazka sozioraburak markatutako errealitatea datorkigu. Negu hau aurrekoak baino “bero” edo gatazkatsuagoa izango da. Administrazio eta enpresaburuek *dekretazo* edo inposaketaren politika utzi beharko lukete eta elkarrizketa erabili egoera gatazkatsuak saihestu edo murrizteko.

Juan Mari Arregi

Koalizio hotsak tortura oihuen artean

DATORREN ASTELEHENEAN, hilak 14, Espainiako Kongresua desegino da eta urtarrileko hirugarren asterako Barne Ministerioan bere izena emanda beharko du hauteskundeetara aurkeztu nahi duen edozelako koalizioi. Aste honi geratzen zaizkion egunetan, beraz, edo beranduenez 14tik 21era doan horretan jakin izango da EAJ-EA-EB-Aralarrekin osa dezaketen balizko koalizioarekin zer gertatzen den.

Duela 30 urte egin ziren Espainiako lehenbiziko hauteskunde orokorrak eta denbora honetan guztian ez da izan halako koaliziorik eratzeko aukerarik. Erabaki eskubidearen inguruan egindako indar bilketa litzateke eta, batez ere, Ibarretxe lehendakariaren galdeketa proposamena babestea eta sendotzea litzateke bere helburu nagusia.

Denak adierazten du zailtasun handiak dituela saioak eta gaitza izango dela ekimena aurrera ateratzea. EAJko sektore esanguratsuek Josu Erkorekaren ahotik adierazi dute koalizioaren aurkako jarrera eta Ezker Batuak ez du publiko egin berea. EA eta Aralar dira apustuaren alde argi agertu direnak.

2004ko martxoko hauteskundeetan EAJk 421.000 boto lortu zituen EAEn, EBk 102.000, EAK 81.000 eta Aralar-Zutikek 38.000. Denen artean 642.000 boto eta 8 diputatu eskuratu zituzten, horietako 7 EAJk eta 1 EAK. Bergarako ekimenaren proposamena egin zuen orduan ezker abertzaleak eta boto baliogabeetatik 93.000 inguru izan zen hautu honi egotzitako boto kopurua.

PSE-EEK 339.000 eta PPK 235.000 boto lortu zituzten, bien artean 574.000 boto eta 11 diputatu (D'Hondt Legearen ondorioak).



Hilaren 5ean argitaratu zuen Gara-k ETArekin egindako elkarrizketa eta bertan erakunde armatuak borrokara deitu zuen euskal gizartea.

Teorian argi dago erabaki eskubidearen aldeko indarren nagusitasuna, baina koalizioa beti da aho biko labana: dauden kontraesanengatik, ez da erdiesten guztien artean bildu ohi den uzta edo arrakasta haien botoetatik oso gora doa.

Martxoaren 9ko hauteskundeetan ez dago argi zer gertatuko litzatekeen, baina dialektika nagusia PSOE-PP izanik, alderdi hauek emaitza hobek izan ohi dituzte bozketa hauetan.

Argi dagoena da lehenbizikoz erabaki eskubidearen aldekoen boto multzoa inoiz batu izan den multzo handiaren kontatu ahal izango litzatekeela. Eta hori guztia, seguruenik EAE-ANVk hauteskundeetara aurkezteko izango duen debekuarekin batera gertatuko litzateke.

Itxura guztien arabera, ordea, ez dirudi apustua aurrera aterako denik. Badirudi, gauzatzekotan ere, EAJk nahiago lukeela halako aukera bat aurtengorako aurreikusten diren EAeko hauteskunde autonomiko aurreratueterako uztea.

Nafarroa Bai eta Euskal Herria Bai ekimenaren ondoren dator hau eta, abertzaletasunaren egoera EAEn oso bestelakoa bada ere, aipatutako bi ekimenak ondo hartu izan dira, Nafarroaren kasuan, hautesleek sendo sostengatuta gainera.

ETA-REN ELKARRIZKETAK argi erakutsi du erakunde armatuak negoziazio saioaren porrotaren ondorenerako egin duen borrokarako deia. Ohiko parametro ideologikoetan tinko finkatua, azken 40 urteetako ibilbidearen jarraipen zorrotza iragartzen dute elkarrizketatuek.

ETArri desagerpena eskatu dioten erantzunetan ere ez da berrikuntzarik izan. Eta ohikoan, gatazka giro bortitza ari da nagusitzen. Horren azken adierazleetakoa da Arrasaten Guardia Zibilak atxilotutako Igor Portu gaztearen egoera. Lerro hauek idazterakoan Donostia Ospitalean zegoela jakin zen, saihets bat edo bi apurtuta eta, antza, saihetsak birika bat zulatuta.

Gorka Lupiañez gazteak Guardia Zibilen eskuetan igarotako denboran jasandako tortura salaketa latzak irakurritak, susmorik txarrenak hipotesien aurreneko lekuan jartzen dira Igor Porturen kasuan. Itxaron beharko da datu gehiago izatera, baina torturatuen kasuetan gutxitan izaten da datu gehiago. Ehunka torturatuen esperientziak, aldiz, ETAko kide izatearen akusaziopean atxilotutako gazte honek ere tortura basatiak jaso izanaren susmoa erabat zabalik uzten du.

Tortura ezin geratu izana zuzenbide estatuaren usteltze mailaren adierazle da; eta euskal gizartearen ezintasunaren erakusle ere bai.